

58. EMENDAKINA

274. PARAGRAFOARI (berria) 136. paragrafoan kokatzea

EMENDAGILEA :Aitiziber Barandita

Sektoreko Nazio Komiteko ardura eta dinamizaziopean, herraldeko sektore hitzarmenen negoziaketaren plangintza, zehaztapenak eta lanketa herrialde mailako guneetan eman ahal izango da. Herrialde mailako gatazketan edo kanpainen aurrean ere, aukera bera egongo da. Gune hauek, gure organigraman ez dute izaera finkorik izango

68. ENMEDAKINA

309. PARAGRAFOARI

ENMENDAGILEA: Pablo César Carral

Egoera: adostuta.

Kokapena:

3.5. Interbentzio esparru espezifikoak: autonomoak, etorkinak, gaituak, pentsionistak, ekonomia soziala.

Atal honen bukaeran.

➤ Arlo berrien sorrerarako hizpide orokorra finkatu da; arloaren sorrerari ez zaio atea ixten baina lehenik eta behin ildo definituta egon behar duelarik eta aurrera ateratzeko zein bitarteko organizatibo behar dugun ongi eztabaidatuta. Hau da, ez dugu planteatzen bitarteko estrukturalik sortzea (arloa adibidez), horrek ez du esan nahi ildo eraikitze bitartekorik behar ez dugunik (baina ez da hasieratik estrukturala izango).

➤ Zentzu honetan, sindikatuak finkatu, definitu behar du ildo orokorra (estrategia eta bitartekoak) epe motzean. Eta, ildoaren eztabaida egiteko ohizko bidea (arloak eta idazkaritzak eratzeko erabili duguna, adibide gisa pentsionistak eta gaituen arloak) erabiliko da.